

ALDAKETAREN ZAIN

Lorena Orozko Andonegi , 17 urte

Donostia

Ezer ez da aldatu
beraiantzat denak berdin jarraitzen du,
baina hemen zerbait falta da
azalpen bat,
hitz bi
eta arrazoi bat falta dira.
Malkotan daude hemen
lehen zorientasunez beteriko begi idorrak.

Ezer ez aldatu
denak berdin jarraitzen du,
eta maite zaitut.
Maite zaitut nahiz eta nire ondoan ez egon,
leku arrotz eta ezagunetan,
oroimenean eta orainean,
itsaso zabal eta munduko sabaiean,

Euskal Herri eta Espainian,
maite zaitut.

“Ezer ez da aldatu”
diote pozik irria ezpainetan,
baina zu, nigandik urrun,
sufritzen zaude,
gaude,
hegoaldean,
urdin eta berdeen artean,
gorri, berde eta zuria oroituz
eta minez,
beharrez,
barnean ezkutatuz.

Ezer ez da aldatu,
denak berdin jarraitzen du.
Gurekin zaude nahiz eta hurbil ez egon,
gurekin begirada eta irri guztietan,
irentsitako oihu eta malkoetan,
bihotzean...
Gurekin,
nirekin,
momentu oro, segundu oro,
itzuli arte,
itzuli eta ametsa,
ametsik ederrena,
egia bihurtu arte
eta egunero nire alboan esnatu arte.

Ezer ez da aldatu,
denak berdin jarraitzen du,

eta jende ugarik ez du ulertzen
baina ulertu nahi al du?
Iparrean zein hegoan,
bietan berdin,
jendeak berea soilik ikusten du,
ikusi nahi duena ikusten du
eta besteen hitzei gor,
bizkarra eman ez,
begiak estaltzen ditu
ezjakintasun eta axolagabekeriaren zapiaz.

Ezer ez da aldatu,
25 urtez denak berdin jarraitzen du,
euriak gure aurpegi, gorputz eta bihotzak
bustitzen jarraitzen du.
Non dira ba, aterkiak?
Badira leku askotan,
Irlandan zein Kortsikan,
iraganean.
Eta etorkizunean,
ipar zein hegoaldean?

Ezer ez da aldatu,
denak berdin jarraitzen du.
Baina aldatuko da,
ate berri bat irekiko da,
itxaropenez,
begirunez eta errespetuz,
okerrak barkatuz
eta barkamena eskatuz,
denak batuko baikara,

zu eta haiek,
gu,
elkarrekin, eta denen artean
herri bakar bat sortzeko,
benetako Euskal Herri bat eraiki
eta maitatzeko.